




# ENPLEGUARI BURUZKO IGURIKIMENAK

## Enpleguari buruzko igurikimenak nabarmen hobetu dira martxoan

ENPLEGUAREN IGURIKIMEN INDIZEA  
EUROGUNEA

2020ko MARTXOA

97,7




Europako Batzordeak enpleguaren igurikimenean indizearen martxoko datuak ezagutarazi ditu. Adierazle horren arabera, hilabete horretan hobekuntza handia gertatu da Europako herrialdeen multzoan. Zehazkiago adierazita, Euroguneko indizea otsailean 90,9 izatetik martxoan 97,7 izatera igaro da, ia zazpi puntuko hobekuntza. Europar Batasunean, oro har, hobekuntza 91,9tik 98,0ra doa. Egia da oraindik ere ezkortasuneko puntu bat dagoela, ez baita lortu aldagaiaren batez besteko historikora itzultzea (100), baina gogoratu


behar da pasa den apirilean jaso zen balioa 60 baino pixka bat handiagoa izan zela bi eremu horietan.

Alemania 100eko muga gainditzea lortu duen herrialdeetako bat da, baina oso modu arinean (100,2). Herrialde horretan, adierazlearen gorabeherak beste herrialde garrantzitsu batzuetakoak baino txikiagoak izan ohi dira. Frantziaren kasuan, ibilbide luzea egin behar da gaur egungo 92,4tik batezbesteko historikoa gainditu arte, nahiz eta adierazlea lau puntu luze igo den hilean.

ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. ALEMANIA




ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. FRANTZIA




Espanian ere bilakaera ona hauteman da, baina adierazlean ez da joera argirik ikusten. Izan ere, joan den ekainetik aurrera 85 eta 95 puntu artean baitago kokatuta, martxoko datua 94,5ekoa izan delarik.

Herbehereetako kasua Alemaniakoaren antzekoa da, apirilean indizeak beherakada txikia izan zuelako eta gaur eguneko susperraldia 100,5era iritsi delako, kutsatzeen bigarren olatuaren kaltea gainditu ondoren.


### ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. ESPAINIA



### ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK, HERBEHEREAK




### ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. BELGIKA



Belgikak baikortasuna pixkanaka berreskuratzen ari delako irudia erakusten du, apirilean jasotako puntu baxu bateatik (66,6) aurtengo martxoan lortutako 101,4ra arte. Azkenik, Portugalen kasua ez da aurreko herrialdeena bezalakoa, zeren eta bizkorrago suspertu baita, nahiz eta gero baikortasun eta ezkortasun txiki batzuen artean mugitu den, eta orain 103,2 puntuko maila esanguratsu batean kokatu da, Europako handienetako bat baita.

### ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. PORTUGAL



Iturria: Europar Batzordea.